

## **KONTROL MOZIOA**

### **ARRAZAKERIA ETA XENOFIARIEN KONTRAKO POLITIKA BATERATUEN INGURUKO AKORDIOAK BETE EZ IZANA DELA ETA**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko abenduaren 12an, Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

2016ko apirilaren 27ko udalbatzarrean, aho batez, bi puntu onartu genituen. Alde batetik, arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako salaketa lana, sentsibilizazio kanpainak eta ekimenak hirian ugaritzea, talde politiko eta hiriko eragile zein herritarren arteko bateratasuna eta haien parte hartzea bermatuz. Eta bestalde, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunean, ahalegin berezia egitea hiriko eragile eta talde politikoekin adostasunak bilatzeko eta herritarrak gonbidatuko diren adierazpen instituzionalaren onarpena eta irakurketa publikoa egiteko.

Aldiz, elkarbizitzarako eta gizarte eraldaketarako irmotasunez errotik hartu beharreko arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politika bateratuen akordioa betetzen ez zela-eta, 2016ko ekainean, Udal Gobernuia berriro interpelatu behar izan genuen.

Ekainean bertan, Kultur Aniztasun Bulegotik kudeatzen ari den jardueren berri emateko bilera batera deitu gintuzten. Talde politiko guztiak ordezkaturik ginen eta solasaldi interesgarriak suertatu ziren. Zenbait deialdi zehazteko eta informazioa bidaltzeko konpromisoa ere hartu zen baino gaur arte ez da horrekin bete. Azken sei hilabeteetan, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako elkarlana ez da bideratzen ari.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

## **KONTROL MOZIOA**

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

---

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezkoak diren baliabideak jar ditzala, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politikaren alde Udalbatza honek hartzen dituen erabakiak betetzeko.

Donostian, 2016ko abenduaren 15ean

Naiara Sampedro Perez  
EHBildu udal taldeko zinegotzia